

9. KOSTUEN EGITURA

KLIKASI proiektua aurrera eramateko hainbat kostu garrantzitsu hartu behar dira kontuan, bai finkoak bai aldakorrak.

Alde batetik, kostu finkoen artean daude plataforma digitalaren garapenarekin eta mantentzearekin lotutako gastuak, hala nola, webgunearen eta aplikazioaren hosting-a, interneteko zerbitzariak, softwarearen mantentzea eta segurtasun-sistemak. Era berean, teknologia-enpresa laguntzaileen zerbitzuak eta edukiak gainbegiratzen dituzten profesionalen kostuak edo soldatak ere kostu finko nagusien parte izango dira.

Bestetik, kostu aldakorren barruan sartzen dira erabiltzaile kopuruaren arabera handitzen diren gastuak, hala nola banda-zabalera handiagoaren beharra, hodeiko biltegitratze gehigarria edo plataformaren sustapenerako komunikazio-kanpainak. Hasierako fasean, KLIKek inbertsio teknologiko garrantzitsua egin behar du, batez ere plataformaren diseinuan eta garapenean, baina erabiltzaile kopurua handitu ahala, irabaziak lortzen hasiko da, erabiltzaile bakoitzeko kostua txikituz. Horri esker, KLIKASIk kalitate handiko zerbitzua eskaini ahal izango du, kostu-egitura jasangarri eta kontrolatu batekin.